anboto

TOKIKOM

2011ko otsailaren 18a
9. urtea - 404 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri |4|
Herri-galdeketari buruzko zalantzak argitzeko batzarra deitu dute Izurtzan

Berbaz |8|
Aritz Otxandiano: "Udal politikagintza ulertzeko modua aldatzen saiatu gara"

Amalurra |18|
Balore ekologikoa daukaten Ibilbide bi konpondu dituzte Berrizen

Karabana Solidarioa Tindufera bidean da

> 24.450 kilo elikagai bildu dituzte eskualdean Tindufeko kanpamenduetara bidaltzeko

> Durangaldeko laguntza daroan kamioia Euskal Herriko karabanan abiatuko da

2

Durangaldeko udal ordezkariek eta Herria elkarteko kideek Karabanaren aurkeztu zuten atzo Mallabian. Juanra de la Cruz

Konpromisoa eskatu dute euskarazko hedabideek

Anboto Komunikabideak-ek euskarazko hedabideek martitzenean Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egindako agerraldiagaz bat egin zuen. Administrazioaren aldetik konpromiso sendoagoa eskatu zuten. Erakunde nagusiek ez dutela euskarazko hedabideen indarra kontuan hartzen salatu zuten.

2

J.L.Mendilibar: "Ilusio handiz hartu dut erronka berria"

KIROLA• Jose Luis Mendilibar zaldibartarra da Osasunako entrenatzaile berria. Hauxe du talde baten gidaritza liga hasita dagoela hartzen duen lehenengo aldia, baina "ilusioz" hartu duen "erronka" dela dio. Talderik izan ez duen denboran faltan gehien bota duena "eguneroko jarduna" izan ei da, "entrenamenduak".

17

Albert Pla eta Diego Cortés Arriolara

KULTURA• Azken urte bietan zuzenekoetan aurkezten jardun duen *La Diferencia* lana kontzertu berezian eskainiko du gaur Albert Pla musikari katalanak Elorrioko Arriolan, Diego Cortés lagun eta gitarrista handiagaz joko baitu. Inprobisaziotik asko daukan ikuskizuna dakartela aurreratu digu Plak.

11

•Mallabia
Telebista errepikagailua jarriko du Bitoitan Itelazpi enpresak 7

•Atxondo
1,4 milioi euroko aurrekontua onartu du Atxondoko Udalak 4

•Iurreta
Palestinari buruzko zikloa 6

PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
902 110 436
www.mondragon.edu/prest

ATE IREKIAK
ARETO NAGUSIAN
Etorri aurretik izena eman!

Enpresagintza Fakultatea
OÑATI OTSAILAK 24 osteguna, 18:00 | IRUN MARTXOAK 3 osteguna, 18:00

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
ESKORIATZA MARTXOAK 3 osteguna, 18:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea
BILBAO OTSAILAK 19 larunbata, 10:30
Euskalduna Jauregia.

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

24.450 kilo elikagai batu ditu Karabana Solidarioak aurten Durangaldean

Elikagaiekin betetako kamioia zapatuan abiatuko da Aljeriako Tinduf-eko kanpamenduetara

Durangoko Herria auzo elkarteak kudeatzen du Durangaldean Karabana Solidarioa, eta aurten ere kamioi bete elikagai batu dituzte Aljerian dauden Tindufeko kanpamenduetara bidaltzeko. Hain zuzen ere, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Garai, Iurreta, Mallabia eta Zaldibarren 5.200 kilo batu dituzte kanpainak iraun duen bitartean. Kopuru horri aipatutako herrietako udalek emandako diruagaz erositako elikagaiak gehitu behar zaizkio; beraz, azkenean, 24.450 kilo bidaliko dituzte Tindufera.

Ekimenean parte hartzen duten Udalen partetik 36.663 euroko laguntza jaso dute

Guztira, aurten 42.663 euro jaso dituzte diru-laguntzetan. Horietatik 36.663 ekimenagaz bat egiten duten eskualdeko zortzi udaletatik jaso dituzte; gainerako 6.000 euroak norbanako batek dohaintzan emandakoak dira.

Elikagairik ugarienak arroza (6.500 kilo), azukrea (4.480) eta indabak (4.200) dira; tomatea, pasta, dilistak eta bestelako jaki mordoa ere batu dute. Gainera, elikagaiekin batera, arropa, jostailu eta ordenagailu batez beteriko 15 kaxa ere bidaliko dituzte.

Atzo Mallabian aurkeztu zuten elikagaiz betetako kamioia zapatuan abiatuko da Alacanterantz Euskal Herriko beste bost kamioigaz batera; guztira, 200 tona elikagai garraiatuko dituzte. Alacantetik Aljeriako Oran hiriko portura bideratuko dituzte produktuak itsasontziz, eta handik Tindufkanpamenduan errefuxiatutako saharauiei helaraziko dizkiete.

Mallabian egindako prentsaurrekoan jakinarazi dituzte aurtengo kanpainaren datuak.

Bihar abiatuko da Alacantera kamioia, eta handik Tindufera bideratuko dituzte elikagaiak

Herria auzo elkarteak ekimenaren balorazio ona egiten du: "Nahiz eta iaz baino elikagai gutxiago jaso, krisia dagoenla kontuan hartuta, balorazio positiboa egiten dugu". ■ J.D.

Durangaldeko laguntza

- Arroza: 6.500 kg.
- Azukrea: 4.480 kg.
- Indabak: 4.200 kg.
- Tomatea: 2.800 kg.
- Zerealak: 2.000 kg.
- Dilistak: 1.450 kg.
- Atuna: 620 kg.

Guztira: 24.450 kg.

- Konpresak: 2.500
- Arropaz, jostailuz eta ordenagailu batez betetako 15 kutxa ere bidali dituzte.
- Udaletatik jasotako dirua:

Guztira: 36.663 euro

Konpromiso handiagoa eskatu dute euskarazko hedabideek

Anbotok bat egin du hedabideek Donostian egindako agerraldiagaz

Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egin zuten agerraldia euskarazko hedabideek.

Euskarazko hedabideek agerraldia egin zuten, martitzenean Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, instituzioen aldetik sostengu ekonomiko handiagoa eta konpromiso sendoagoak eskatzeko. Anboto Komunikabideak-ek bat egin zuen deialdiagaz.

Krisi ekonomikoak gogor astindu ditu euskarazko hedabideak, eta erronka berriei aurre egiteko "sostengu erantsia" eman beharrean "laguntzak murriztuta ikusi ditugu", azaldu zuen Jasone

Azterketa batek dioenez, 450.000 lagunengana heltzen dira euskarazko hedabideak; euskaldunen %57rengana

"Erakunde nagusiek ez dute euskarazko hedabideen indarra kontuan hartzen"

Mendizabal Topaguneko zuzendariak. Euskarazko hedabideen bokazioa ez dela "bizarautea" azaldu zuen, "garatzea" baizik, "euskal hiztunen komunitateak bere burua euskaraz islatua ikusteko beharrari erantzutea".

Horregatik, indarrak batu eta sektorea garatzeko premia biziko gai bi idenfikatu zituzten: diru-laguntzak eta publizitatea. Laguntzen atalean, "baliabide handiagoak" eskatu zituzten, eta egungo laguntza deialdiaren dinamika baino egonkorrago baten beharra ere azpimarratu zuten: "Urteroko zalantza egoera gainditu eta laguntzaren zenbatekoa urte hasieran ezagutzeko; egonkortasuna kopuruetan eta azkartasuna prozedura eta ebazpenetan".

Publizitateari dagokionez, Mendizabalen esanetan, "argi dago erakunde nagusienek ez dutela euskarazko hedabideen indarra kontuan hartzen". Euskaldunen erdiak baino gehiagok kontsumitzen dituzte euskarazko hedabideak, "baina publizitate inbertsioa ez da maila berean ematen". Otsailean eta martxoan instituzio nagusietako eta alderdi politikoetako ordezkariekin elkartzeko asmoa agertu zuten.

450.000 lagunengana

Ehundik gora dira euskarazko hedabideak prentsa, irratia, telebista eta internet kontuan hartuta eta 620tik gora dira horietan lanean ari diren langileak. 2007an CIESek propio egindako azterketa batek zioenez, euskarazko hedabideak 450.000 lagunengana heltzen dira; hau da, euskaldunen %57 euskarazko hedabideen jarraitzaile da. ■ J.D.

DURANGO

AISA euskara ikastaroetan izena emateko epea hasita dago

AISA etorkinendako euskara ikastaroak martxoaren 2an jarriko dituzte martxan. 16 urtetik gorako etorkinei zuzendutako ikastaroetan otsailaren 23a arte izena eman daiteke, Euskara Sailak Pinondo Etxean daukan bulegoan. Eskolak astelehen eta asteazkenetan izango dira 18:30etik 21:00etara. 60 orduko iraupena izango du.

AISAn otsailaren 23a arte eman daiteke izena udaleko Euskara Sailak Pinondo Etxean daukan bulegoan

Ikastaroan, AISA programaren aurreneko liburuak eta irudidun hiztegia erabiliko dituzte. Ekimenaren arduradunek azaldu dutenez, Durangoko Udala Euskara Sailaren bidez eta Inmigrazio Sailaren laguntzagaz 2005ean hasi zen ikastaroa antolatzen, "udalaren egitekoa baita integrazio prozesua erraztea, ahalik eta azkarren, benetako durangar sentitu daitezen". ■ J.G.

Kexak ginekologia zerbitzuan izandako atzerapenengatik

Osakidetzak zerbitzuan doikuntzak egin ditu; orain egunero dago ginekologoa Osasun Zentroan

Durangoko Osasun Zentroko ginekologia zerbitzuak 22 kexa jaso zituen iaz. Zerbitzua Osakidetzak kudeatzen du, eta Osasun eta Kontsumo Saileko sailburu Rafael Bengoak hitzorduetan izandako atzerapenak "oso luzeak izan ez arren, egon egon dira", onartu du; nolanahi, iaz 2009an baino 600 kontsulta gehiago artatu zirela ere adierazi du. Artatzeok kontsulta ordutegiaren barruan egin dituzte; ordutegia ez da luzatu.

Iazko urtea amaitu arte, normalean, astean bost kontsulta izaten ziren astean; baina aste batzuetan lau kontsulta egon zitezkeen eta sarritan egun bitan kontzentratuta (goiz eta arratsalde). Horrez gainera, Durangora etortzen ziren medikuak ez ziren beti berak. Bide horretatik, Osakidetzak goizetan bigarren kontsulta sortzea aurreikusita zeukan, urtarriletik aurrera beste mediku bat ipinita, baina "epe horretan aldi baterako zenbait ezintasun izan direnez, ezin izan da aurreikusita zegoen laneratze hori bete".

Egunero kontsulta bat

Urtarriletik aurrera ginekologia zerbitzuan hobekuntzak igarri direla adierazi dute Osasun Zentroko ordezkariek. Batetik, orain goizetan egunero dago kontsulta, astelehenetik barikura. Horrela, astean gutxienez goizetan bost kontsulta izatea ere bermatzen da. Bestalde, orain beti mediku bera dago, eta horrek pazienteekiko hartu-emana errazten du. Arratsaldetako kontsultek iaz legez jarraitzen dute. Osakidetzatik 10 bat eguneko aurrerapenagaz jakinarazten dute errefortzuko kontsultak noiz izango diren. ■ J.D.

Lehen ez bezala, orain mediku bera egoten da beti goizetan.

Aralarrek salatu duenez, "sinesgarritasuna galdu du gobernu taldeak"

2010eko aurrekontuetan jasotako inbertsioen "%30 bakarrik" exekutatu du gobernu taldeak

Alderdi politikoak 2011ko aurrekontuen eztabaidan murgilduta dauden honetan, Dani Maeztu Aralarreko zinegotziak salatu duenez, "gobernu taldeak ez du sinesgarritasunik eztabaida horretan", iazko aurrekontuetan jasotako inbertsioen "%30 bakarrik" exekutatu duelako: "Proiektuak onartzen dira, baina ez dira betetzen Gobernu Taldearen kudeaketa gabeziagatik".

Egikaritu ez diren proiektu batzuk ipini dituzte adibide moduan: Urki-Hegoaldeko errepide lotuneari buruz, "lehenengo urte bietan, udalak luzatutako aurrekontuekin jardun zuenean, proiektu estrategikoak oztopatzen ari ginela zioten", azaldu dute, "eta orain, proiektua gauzatzeko beharrezkoa zen permuta lortu dela urtebete joan denean, ez dute ezer exekutatu".

Zerbitzu sozialak San Agustinen batzeko, Kultur Etxea egiteko eta Tabirako azpiegituretan (sasoi batean igerilekuak zeuden azpiegiturak) rokodromoa eta skate pista egiteko proiektuak osatzeko diru-atalak ere aurreikusten zituzten 2010ko aurrekontuek, "baina bide horretatik ere ez da ezer egin". Muruetatorreko eraikinaren (Landako ikastetxearen ondoan dagoena) erabilerak "oraindik definitu barik" jarraitzen duela ere salatu dute, "nahiz eta horren gaineko eztaida egon izan den batzordeetan".

D. Maeztu: "Gobernu taldearen kudeaketa gabeziagatik ez dira proiektuak betetzen"

Beraz, legegintzaldia amaitu arteko denboran "lanean jartzeko eta inbertsioak aurrera ateratzeko" eskatu dio Aralarrek gobernu taldeari. ■ J.D.

"Euskararen Udal Araudia ez da bete", dio Ezker Abertzaleak

2008ko abenduan Udaleko Euskara Plana onartu zuten eta 2010eko uztailean Euskararen Udal Araudia. Durangoko Ezker Abertzalea abstenitu egin zen botazioetan. Izan ere, "lehen pausu modura ez dira guztiz txarrak araudiak, baina zatiren bat betetzen ez denerako ez dago kontrol neurri eraginkorrik hartzeko modurik; araudia betetzen ez bada, ez da ezer gertatzen".

"Araudiko zati bat betetzen ez denerako ez dago kontrol neurri eraginkorrik"

Euskara eguneroko lan erreminta izateko "trabak" jartzen dira, eta "idatziz zein ahoz salatu arren osoko bilkuran edo batzordeetan, ez da ezer gertatzen". Aurrekontuetan ere "eman beharreko informazioaren %100 gazteleraz dator; euskaraz ez, ordea". Horrela, "euskaldunok bigarren mailako herritartzat" hartuak direla diote. ■ J.D.

Erraldeko langileen eta gerentziaren ustez, politikarien txanda da

Proiektua bideragarria dela arrazoitu dutela eta "orain klase politikoaren ordua" dela azaldu dute

Erralderen laugarren urteurrenean, hiltegiko langileek eta gerentziak oharra kaleratu dute, proiektua bideragarria dela esanez eta hiltegi berriaren egitasmoa "berraktibatu" behar dela aldarrikatuz.

Zapatuan bete ziren lau urte Erralde hiltegiak lehenengo pausuak eman zituenetik. 4.000 abeltzain inguruk ekarritako 22.000 buru baino gehiago hil dituzte bertan, eta Bizkaiko Bildotsa izendapenagaz Bizkaiko artzainen bildots gehienak ere bertatik pasatu dira. Oharrean diotenez, Erralderen balantze ekonomikoak "positiboa izaten" jarraitzen du. 18 langilegaz, "produktibitatearen marjina industriala 645.030 eurotan izateak, enpresa-proiektu interesgarri baten aurrean gaudela ondorioztatzen du". Alokairu eta mantentze-lanak 200.000 euroko gastua daukatela-eta, proiekzioa duen egitasmoa dela deritzote. Izan ere, Erralde Durangon dago kokatuta, baina denbora baterako bakarrik. Berrizen instalazio berriak egitea da asmoa.

Erralderen bazkide, bazkide ez diren Bizkaiko udalerri, Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta abeltzainei adierazi diete eurak direla "Erralderen oinarrizko sostengu ekonomikoa".

Erralde "proiekzioa" daukan egitasmoa dela irizten diotela azaldu dute

Amaitzeko, kontratuekin, Durangoko Udalagaz, Osasun Sailagaz eta auzokideekin dauden hainbesteko "kezka eta zalantzak" ezin direla luzatu diote. "Langile eta gerentziak berba egin dugu, proiektua bideragarria dela argudiatuz, eta orain klase politikoaren ordua da". ■ J.G.

ATXONDO

1,4 milioi euroko aurrekontua onartu dute 2011rako, ia inbertsiorik barik

112.000 euro aurreikusi dituzte inbertsiotarako, eta gehiena hirigintza planerako izango da

Gobernu taldearen aldeko botoekin eta EAJk kontra bozkatuta onartu dituzte, eguazten honetan, 2011ko aurrekontuak. Atxondoko Udalak 1.441.880 euroko aurrekontua izango du. Iaz baino milioi bat euro gutxiagogaz eta "austeritatez" ekingo dio urteari, David Cobos alkateak azaldu duenez.

Urteari udalak iaz baino milioi bat gutxiagogaz eta "austeritatez" ekingo dio

Hasita dauden beharrak amaitu eta zorrak ordaintzen hasteko urtea izango da aurtengoa Atxondon. Izan ere, 100.000 euro baino gehiago zorrak ordaintzeko direla azaldu du Cobosek: "Aurreko urteetan udalak inbertsio handiak egin ditu, eta beti esan dugu zorpetzeko aukera zegoela".

Inbertsiotarako 112.000 euro utzi ditu udalak. Zati handiena, 100.000 euro, Hiri Antolamendurako Plan Nagusia ordaintzeko izango da.

Talde eta elkarteentzako dirulaguntzak mantendu egin dituzte, eta udaleko langileen soldatak ere bai, laster, dekretuz, funtzionarioen soldata jaitsiera aplikatu beharko badute ere.

EAJk kontra bozkatu du

Aurrekontuen kontra bozkatu aurretik, Migel Angel Buruagak EAJren iritzia eman du. Murrizketak "sinestezinak" direla eta "egoera lazgarri horretara zelan heldu diren jakiteko" aditu bati azterketa eskatzea gustatuko litzaiekeela azaldu du. ■ A.U.

Atxondon hirigintza plana eratzen dabiltza azken urteotan.

Talde eta elkarteentzako diru-laguntzak mantendu egingo dituzte 2011 urtean

D. Cobos: "Bide legaletik AHTa gelditu daiteke"

Alkateak AHTaren akten sinadurari uko egin eta gero, gobernu taldeak mozioa aurkeztu du udalbatzarrean. Mozioan AHTaren kontrako jarrera berretsi dute, eta proiektuen sustatzaileei "legez kanpoko jarduerak bertan behera uzteko" eskatu diete.

EAJko zinegotziek "trenak ingurugiroan izango duen inpaktuaz zalantzarik ez" dutela azaldu dute. EAJko lehengo alkateak ere ADIFegaz ez zuela kolaboratu eta "uko egite horrek bere ondorioak izan ditzakeela" esan dute. Alderditik ekarritako testu bat ere aurkeztu dute aktan sartzeko. Idatzia arinago komunikabideei bidalitako bera da. Bertan diotenez, gobernu taldea "trena pasatuko ez dela esanda, herritarrak engainatzen dabil", eta "min gehien egingo duen ibilbidea egitea lortuko dute".

David Cobos alkateak adierazi du "lau urtean AHTaren lanak atzeratzea lortu" dutela. Krisia eta udalen oztopoak aipatu ditu: "Beste udalak bide legaletara animatu gura ditugu. Hori da trena gelditzeko bide bakarra". ■ A.U.

ELORRIO

Gaztetxearen 23. urteurrena ospatzeko, egun osoko jaia bihar

Goizean hasi eta goizaldera arteko egitaraua prestatu du Elorrioko Gaztetxeak bere 23. urteurrena ospatzeko. Eskalada txapelketagaz hasiko dute bihar eguna, 11:00etan rokodromoan. Eguerdi aldera, 13:00etan, hasiera ekitaldia egingo dute, Antton&Liherrekin, txupinazoa botata eta luntxa eta sagardoagaz. Ondoren, poteoa egingo dute Elektrotxarangagaz, eta bazkal aurretik, urtero legez, San Josen omenaldia egingo dute, 14:30 aldera.

Bazkaria eta kontzertuak

Hirurak aldera bazkaltzeko elkartuko dira herri-ikastetxean ipini berri duten erabilera anitzeko eraikinean, hainbat sorpresagaz. Bazkalostean urteroko familia argazkia egingo dute Gaztetxean.

Iluntzean kontzertuak hasiko dira Gaztetxean. 20:30ean, lehen taldea Split 77 izango da, eta ondoren, Zea Mays, Sermond´s eta Edanen emanaldiak goizaldera arte iraungo dute. ■ A.U.

Berdintasun teknikariaren lanpostua lehiaketara

Iazko aurrekontuetan aurreikusitako moduan, Elorrioko Udalak berdintasun teknikari jarduteko lanpostu finkoa sortu du. Lanpostuaren oinarriak onartu dituzte asteon, eta laster lehiaketa bidez beteko dute postua.

Lanpostua finko bihurtu ala ez, hainbat eztabaida izan da Elorrioko Udalean. EAJk postu finkoa sortzeko beste lan karga ez dagoela esan izan du, eta PSE-EEko zinegotziak ere ez du argi ikusi. Niko Moreno alkateak azaldu duenez, zerbitzua egonkortzearen alde daude gobernu taldeko kideak, eta Berdintasun Sailean egiten den beharra gogoratu du: "Sailak bideratzen dituen ekintza ugariez gainera, berdintasun gaietan aholkularitza zerbitzua eskaintzen du". ■ A.U.

Iazko aurrekontuetan postua lanpostu zerrendan sartu zuten, eztabaidak tarteko

BERRIZ

Etxe berriei izena ipintzeko aholkularitza

Euskaltzaindiaren laguntza izango du udalak. Mapa toponimikoan ere jaso gura dituzte izenak

Berrizko Udala herriko leku-izenen azterketa egiten dabil, eta "herritarrekin izandako hartuemanetan ikusitako beharrizanari erantzuteko", udalerrian eraikitzen diren etxe-baserri eta eraikin berriei izena ipintzeko laguntza eskainiko du. Horretarako, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen aholkularitza izango duela aurreratu dute.

Gogoratu dute Euskal Herriko ohituretako bat izan dela etxeek izena edukitzea

Gogoratu dutenez, Euskal Herriko ohituretako bat izan da etxeek izena edukitzea. "Etxeen izenekiko lotura hain handia izanik, deiturak etxeetatik hartu izan ditugu." Etxe berriak eraikitzean izen berriak sortu ziren.

Bide batez, "Berrizko mapa toponimikoan jasota geratu daitezen", eraikin berrien izenen berri udaletxean emateko eskaera ere luzatuko diete. ■ M.O.

ZALDIBAR

Ezker Abertzaleak ez du Agenda 21en parte hartuko

Oraintsu egindako foroa "kosmetika hutsa" dela dio, "hauteskunde aurreko kanpaina"

Lau urte dira Zaldibarren Agenda 21eko foroak egiten hasi zirela, eta Ezker Abertzalearen iritziz, "argi geratu da hauen helburua erakundeen jarduna zuritzea dela". Herritarrek parte hartzeko tresna legez aurkeztu arren, "tertulia hutsak" izan direla salatu dute, "gai garrantzitsuez ezin izan delako berba egin".

"Gai garrantzitsuak lantzen ez diren bitartean", ez dute foroan parte hartuko

Lurralde Zati Plana, Hiri Antolamendurako Plana, trenbideko obrak, aurrekontuak eta eskola ereduaz eztabaidatzeko deia egin dezatela eskatu du Ezker Abertzaleak. Hain zuzen ere, "gai garrantzitsuak lantzen ez diren bitartean", eurek ez dutela parte hartuko aurreratu dute.

Ingurumenarekiko jasangarritasuna aztertzen dela-eta, "AHTaren gainean ezin eztabaidatzea" ere kritikatu dute. ■ M.O.

RENAULT CLIO
1.2 75cv EXPRESSION
2010ean matrikulatua.
80.000 km. arteko edo 2013ko otsailera arteko bermea
9.800€ -tik aurrera.

www.gaursaautoak.com

RENAULT OCASIÓN ZUK DENA NAHI DUZULAKO.

* Izakinak amaitu arte balio duen eskaintza. Ikustarazitako eta eskainitako modeloak desberdinak izan daitezke.

RENAULT

GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO.
BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO. BIZKERRE S/N. TEL. 94 430 68 81. GETXO.

OTXANDIO

Orain Herri-ola egitasmoa gizarteratzen dabiltza. Judit Fernandez

Herri-ola: Otxandioren hazkundea eta nortasuna definitzeko egitasmoa

Etorkizuneko garapen eredua zehazten dabil udala, herritarren eta eragileen ekarpenekin batera

Garapena bai, baina norantz eta zer modutara? Galdera bi horiei erantzun gura die Herri-ola egitasmoak. Hazkundeak herrialde garatuen bizitza maila "nabarmen hobetu" duen arren, eredu hori "dimentsio anitzeko krisian" dagoela jasotzen du udalak osatutako egitasmoak, eta horregatik eredua berrasmatu gura dute, bizitza kalitateari garrantzia emanez eta herriari ondoen egokituriko garapena definituz.

Egitasmoak hiru zutabe ditu: iraunkortasuna, parte-hartzea eta euskalduntasuna

Egitasmoa hiru oinarritatik abiatzen da: iraunkortasuna, parte-hartzea eta euskalduntasuna. Iraunkortasunaren bidea ezinbestekotzat jotzen dute, "ezin dugulako etengabeko hazkunde batean ibili", Aritz Otxandiano alkatearen esanetan. Demokrazia ordezkatzailetik parte-hartzailerako bidea ere egin gura dute "erabakiak herritar guztien artean hartu behar direla uste dugulako". Azkenik, garapena "euskaratik eta euskararako" izatea gura dute.

Egitasmoak ez dauka epe finkorik: "Dauzkagun balibideen eta gaitasunen arabera joango dira garatzen, eta herritarrek aztertu eta onartzen dituzten heinean. Ez daukagu presarik, proiektu anbiziotsua delako gurea lako herri txikiarentzat". Orain apurka-apurka Herri-ola gizarteratzen dabiltza.

Hurrengo, Otxandiok erregai fosilekiko dependentzia murrizteko egitasmoa aurkeztuko dute. Otxandion 1.000 behi inguruko abeltegi bat dagoenez, asmoa hor sortutako hondakinak biometalizazio prozesu bategaz aprobetxatzea da. Horregaz sortutako energia eraikin publikoak berotzeko erabiliko lituzkete. ■ J.D.

IURRETA

Palestinaren gaineko argazki erakusketa eta bideoforuma

Otsailaren 25a bitartean Iurretako Udalak *Welcome* deritzon argazki erakusketa antolatuko du. Erakusketa 18 panelek osatzen dute, hainbat autoreren argazkiak, mapak, testu laburrak eta Palestinako olerkarien bertsoak bilduz. Historia eta okupazioaren ondorioak azaltzen dituzte, giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbidea betetzearen ikuspegitik. Ibarretxe kultur etxean ikusgai dago, goizeko 09:00etatik 13:30era eta arratsaldeko 15:00etatik 20:00etara, astelehenetik barikura. Erakusketagaz, Bakea eta Duintasuna elkarteak eta Biladi palestinar kultura zentroak palestinar herriaren errealitatea hurbildu gura diete Bizkaiko herritarrei; "1948. urtetik okupazio militarrari eutsi eta bizitza duina izaten ahalegintzen den herri baten errealitatea".

Bestalde, hilaren 24an, eguenean, arratsaldeko 18:30ean bideoforumean *Gueto* dokumentala proiektatuko dute Eneko Calle (Bakea eta Duintasuna) moderatzailea dela. ■ J.G.

GARAI

Laguardiara irteera antolatu du Trumoitte kultur elkarteak

Martxoaren 13an izango da irteera, eta upategi batean bazkalduko dute parte-hartzaileek

Trumoitte kultur elkarteak ekitaldi berri bat prestatu du martxorako: Laguardiara irteera. Herria bisitatu eta Launa upategian bazkaltzeko aukera eskainiko dute plan horregaz. Martxoaren 13rako ipini dute zita.

Goizeko 10:00etan elkartuko dira plazan, bidaiari ekiteko. Laguardiara heldu eta upategian bertan egingo dute hamaiketakoa, antolatzaileek azaldu digutenez. Horren ondoren, herriko kaleak ezagutu eta poteoa ere egingo dute, tabernaz taberna.

Goiza pasatuta, eguerdian upategira bueltatuko dira indarrak hartzeko. Bertako ardo eta produktuak izango dituzte mahaian.

Izen-ematea

Dagoeneko badago izena emateko aukera, eta 40 euro ordaindu beharko dira horretarako. Telefonoa eman dute zerrendan apuntatzeko: 649 130 052. ■ M.O.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

ABADIÑO

Herri programa aurkeztu du Ezker Abertzaleak

Joan zen zapatuan, 'Zure hitza, gure ahotsa' lemapean batu ziren Txanporta kultur etxean

Ehundik gora abadiñar batu ziren ekitaldian. Juanra de la Cruz

Zure hitza, gure ahotsa lemapean batu ziren, zapatuan, ehundik gora abadiñar Txanporta kultur etxean. Ezker Abertzaleko zinegotzi izandakoak, gaur egun zinegotzi direnak eta hainbat herritar batu ziren bertan. "Legalizaziorako bidean herri guztietan lan egin beharra" nabarmendu zuten, besteak beste, eta otsailaren 19ko Bilboko manifestazioan Sorturen legeztatzea aldarrikatzera deitu zituzten abadiñarrak.

Defendatzen duten udalkudeaketaren berri ere eman zuten ekitaldian, eta herritarren parte-hartzea sustatzeko bideak bilatzeko beharra nabarmendu. "Lan taldetan dihardugu 2011ko hauteskundeetako herri programa prestatzen", aurreratu zuten, eta herritarren ekarpenak jasotzeko, *abadino2011@gmail* helbide elektronikoa zabaldu dute.

Zinegotzien berbaldia

Azkeneko legegintzaldian udalean zinegotzi izan direnek berbaldia eskainiko dute otsailaren 26an, 11:00etan, Errotan. ■ I.E.

Abizenen eta izenen grafia euskaratzeko kanpaina

Izenen edo abizenen grafia euskarara aldatu gura dutenek jarraitu beharreko prozedura azaltzen duen diptikoa zabaldu du udalak etxez etxe. Argi Abad euskara zinegotziaren esanetan, "herritarrei euren izen osoaren grafia ofizialki aldatu eta Euskaltzaindiak onartutako terminoetara egokitzeko zer prozedura jarraitu behar duten ezagutzera ematea" da kanpainaren helburua.

Udalaren Euskara Zerbitzuan jaso dezakete kanpainari buruzko informazio zehatzagoa interesdunek

Udalak komunikabideetara bidalitako ohar batean jasota datorrenez, erregistro zibilera edo auzitegira jo beharko du izena edo abizenak euskaratu gura dituen herritarrak. Familia-liburua, NANaren fotokopia, erroldatze ziurtagiria eta jaiotza-agiriaren ziurtagiria aurkeztu beharko ditu aldaketa egin ahal izateko.

Kanpainari eta aldaketa burutzeko prozesuari buruzko informazio gehiago gura duenak, Euskaltzaindiaren Interneteko *www.euskaltzaindia.net* helbidean edo Udalaren Euskara Zerbitzuan eskuragai daukala azpimarratu dute. ■ I.E.

Durangaldean labur

Txalaparta ikastaroa antolatu dute Mallabian

Izar Gorri kultur elkarteak Mallabian antolatu duen txalaparta ikastaroa martxoaren 9an hasiko da, eta klaseak arratsaldeko 18:00etan izango dira. Mallabiko Herriko Tabernan eman daiteke izena, martxoaren 7a arte. Jakinarazi dutenez, ikastaroaren prezioa izena ematen duten jende kopuruaren araberakoa izango da.

Aiten eta haurren arteko hartu-emana sustatuz

Abadiñoko Udalak masajeen bitartez aiten eta haurren hartu-emana sustatzeko tailerra antolatuko du martxoan. Aitei eta hamar urtera arteko gaztetxoei zuzendutako tailerra martxoaren 12an hasiko da Errota kultur etxean. Otsailaren 22an, 19:00etan, ikastaroaren berri emateko hitzaldia antolatu dute Errotan bertan.

Errusiako umeak Elorrion hartzeko kanpaina

Kainabera Elorrioko gobernuz kanpoko erakundeak uda honetan ume errusiarrak etxean hartu gura dituzten familia berrientzako kanpaina hasi du. Euren osasunerako onuragarria den atsedena hartzen dute umeek Euskal Herrian. Izena emateko aukera otsailaren amaierara arte egongo da (*www.kainabera.org*).

Eñaut Aiartzaguena aske geratu da

Eñaut Aiartzaguena preso iurretarra aske geratu da aste honetan; 50.000 euroko fidantza ordaindu eta gero atera dute kartzelatik. Aiartzaguena 2009ko azaroan atxilotu zuten, Segi gazte erakundearen aurkako sarekada batean. Beragaz batera, besteak beste, Ibai Esteibarlanda elorriarra ere atxilotu zuten.

IZURTZA

Herri galdeketari buruzko argibideak emateko batzarra

Otsailaren 27an herri ordenamenduaren gainean burutuko duten galdeketari buruzko batzarra

Otsailaren 27an herri antolamenduaren inguruan burutuko duten herri galdeketaren gaineko informazioa eskaini eta herritarren galdera zein zalantzak argitzeko hitzordua datorren eguenean da, otsailaren 24an 19:00etan, udaletxean. Herriko lurralde antolamendua berrikusteko prozesuan beste pausu bat da otsailaren 27koa: herri antolamenduagaz loturiko hainbat aukeratik onuragarrien uste dutena hautatu ahalko dute herritarrek.

Besteak beste, datozen urteetan udalak zein etxebizitza politika garatu behar lukeen adierazi ahalko dute herritarrek euren bozken bitartez; baita herriko lursailak industriagune izendatzea apropos ikusten duten ere.

Asteburuan euren buzoietan jasoko duten triptiko batean izango dituzte galdeketako gaiak irakurgai herritarrek, eta herriko plazan ipiniko duten panel batean ere emango dute otsailaren 27an proposatuko dituzten herri ereduei buruzko informazio zehatzagoa.

Gaur egun herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako izurtzarrek eta azken 10 urteetatik gutxienez 5 urtean herrian errol-

Galdeketari buruzko informazioa jasotzen duen triptikoa zabalduko dute herriko etxeetan. J.F.

datuta egon direnek eman ahalko dute otsailaren 27ko galdeketan euren bozka. Horrela, azken urteotan herritik kanpo bizitzera joan behar izan duten izurtzarrek ere izango dute etorkizuneko Izurtzari buruzko ikuspegia eman.

Azken 10 urteetatik gutxienez 5 urtean Izurtzan erroldatuta egon direnek ere bozkatu ahal izango dute galdeketan

Otsailaren 27an burutuko duten galdeketari buruzko zalantzak eta galderak argitzeko deitu dute otsailaren 24ko batzarra

Iazko irailetik ordenamendua berrikusteko prozesua bideratzen jardun duen Ramiro Mendiburu enpresako abokatu eta teknikariek gidatuko du otsailaren 24ko batzarra: eurek emango dituzte galdeketari buruzko argibideak, eta erantzungo dituzte galderak. ■ I.E.

MALLABIA

Telebista errepikagailua jarriko du Bitoitan Itelazpik

Herrigunean telebista seinalea jasotzeko dauden arazoak konpondu gura ditu Itelazpik

Udaberri inguruan Bitoita gainean dagoen telefoniako antenan jarriko dute telebista errepikagailua. Udaleko arduradunek azaldu dutenez, betidanik egon dira herrigunean telebista seinalea jasotzeko arazoak, "batez ere, Oizen parke eolikoa eraiki zutenetik". Orain hiru urte Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz udalak errepikagailua jarri zuen Mallegoin, baina seinalea hobetu arren arazoekin jarraitu dute. Telebista digitala orain urte bi martxan jarri zenean, "gure teilatuen gainetik inoiz ikusten ez diren antena handiek jarraitzen dute instalatuta Karakateko seinalea jaso guran".

Itelazpik egindako azterketak dioenez, estatu mailako sei kate nagusiak eta euren azpikateak "ganoraz" ikusi ahal izango dituzte (ETB, TVE, Cuatro, Sexta, Telecinco eta Antena 3). Udal ordezkariek gaineratu dutenez, "2012ko udarako Jaurlaritzaren eta Aldundiaren akordioaren bitartez kate gehiago ikusi ahal izango dira". ■ J.G.

MAÑARIA

Martxora atzeratu dute Legebiltzarrerako bisita

Hasiera batean otsailaren 25erako aurreikusita zegoen Gasteizko Legebiltzarrera irteera martxoaren 11ra atzeratu dutela jakinarazi dute asteon udaletik. Azaldu dutenez, hainbat herritarrek eman du dagoeneko bisitarako izena, baina, irteera atzeratu dutenez, interesa daukatenek oraindik ere eman dezakete izena: nortasun agiriaren zenbakia eta izen-abizenak aurkeztu beharko dituzte.

Eusko Legebiltzarren bilkurak non egiten diren eta parlamentuaren futzionamendua zein den ezagutuko dute izena ematen dutenek, eta Legebiltzarrean bertan ikusgai dagoen *Euskara Ialgi adi plazara* erakusketa ere bisitatuko dute. ■ I.E.

BERBAZ >

“Urteok aberasgarriak izan dira, baina ez naiz berriro alkategai aurkeztuko”

Legegintzaldia amaitzear dagoela, gaurko Otxandioz eta bere etorkizunaz berba egin dugu Aritz Otxandianogaz

Zortzi urtean alkate izan eta gero, Aritz Otxandiano ez da maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko. Urte hauek beretzat oso intentsuak izan direla azaldu digu. Otxandioren garapenerako Herri-ola egitasmoa eskuetan ekin diogu elkarrizketari.

Zortzi urte daramatzazu alkate. Zelakoak izan dira urte hauek zuretzat?
Oso urte intentsuak eta aberasgarriak izan dira. Arlo askotan. Asko ikasi behar izan dut denbora gutxian. Herrian ere aldaketa dezente egin dugu. Ikusgarriena, beharbada, urbanistikoa izan da. Alde zaharra oinezkoentzat ipini dugu, auzo batzuk konpondu, herri barruko saihesbidea egin... Horrez gainera, saiatu gara udal politikagintza bestelako modu batean ulertzen; jendearen parte- hartzeagaz. Zortzi urteotako lan horren fruitua Herriola da. Aurrera doan ala ez, datorren urteotan ikusiko da, eta nik ez dudanez jarraituko, pena apur bat ematen dit ez ikusteak. Hurrengo datozenek, badaukate lana.

“Dirulaguntzen menpe daude Andikonakoa ezik beste proiektu denak”

Nondik abiatuta eratu duzue Herri-ola?
Herriaren etorkizuna irudikatzeko prozesu parte-hartzaileetan hainbat ideia irten dira urteotan. Asko orokorrak ziren; adibidez, “energia berriztagarria aprobetxatu behar da”... Bai, baina hori zelan gauzatu? Bueltak ematen hasi ginen eta proiektu konkretu batzuk proposatu eta handienak hamar multzotan sartu ditugu. Otxandio iraunkorrago, parte-hartzaileago eta euskaldunago baterako proposamena da. Orain herrira zabaltzen gabiltza, kontraste ariketa bat egin eta txostena ekarpenekin elikatzeko. Herriaren garapenean, udalaz gainera, zeresan handia daukate gizarte zibilak eta eragile ekonomikoek. Hiruron artean definitu behar dugu herriaren etorkizuna.

Proiektuen gaineko erabakiak hartzeko Herritarren Kontseilua eratu duzue, eta lehen batzarra egin zenuten. Zer moduz?
Ondo. Uztailean egin genuen, eta 50 pertsona inguruk parte hartu genuen. Alternatiba bi aztertu genituen: uraren kudeaketa partzuergoak eroatea edo udalaren esku jarraitzea. Balorazio hobea izan zuen udalaren kudeaketak.



“Herri mugimenduak pisua dauka Otxandion; parte-hartze prozesuetarako sare ona daukagu herrian”

Zer abantaila ditu horrek?
Erabaki guneak herrian egoten jarraitzen du, eta prezioak, depurazio sistemak... Otxandion erabakitzea da kontua. Depurazio sistemari dagokionez, proposamen bat daukagu, sistema ekologikoak eta betikoak konbinatzen dituena. Gordobil inguruan ipini gurako genuke, eta depurazio sistema urtegi muturraren errekuperazio ekologikoagaz uztartu. Laster Eusko Jaurlaritzagaz batzartu behar dugu proposamena aurkezteko.

Duela gutxi onartu dituzue aurrekontuak. Zelako prozesua izan da?
Dirua non gastatu nahiko finkatuta eduki dugu iazko aurrekontuetatik. Andikona plaza berritzen hasi ginen, eta hori amaitzeko izan da diru zati garrantzitsuena. Aurrekontuetan jasotako beste inbertsioak diru-laguntzen menpe daude. Jasoz gero, aurrera eroango dira, baina bestela ezingo dugu. Krisi garaiotan ez genuen gutxitu gura herriko kultur talde eta eragileek jasotzen dituzten diru-laguntzak, eta mantendu egin ditugu.

Andikona plaza bonbardaketaren 75.urteurrenerako prest eduki gura duzue. Zer ekitaldi zabiltzate prestatzen?
Ikerketa beka amaituta, liburua eta bideoa aterako dira. Lan horretan Otxandion gerra aurretik, gerran eta ondoren gertatutakoa kontatzen da testigantzekin. Plaza inauguratu eta beste ekitaldiren bat egingo dugu, baina oraindik ez dago zehaztuta.

Zelako herri mugimendua dago herrian?
Bizitasuna dauka Otxandiok. Apur bat isolatuta dagoenez, ez daukagunez herri handirik hurbil... nahiko bizimodu egiten da bertan. Herri mugimenduek bere pisua daukate; kultur talde dezente dago, gazte asanbladak ere funtzionatzen du, kirol taldeak hor daude... Sare nahiko ona daukagu parte-hartzea lantzeko. Gero, egia da gizartean, orokorrean, bakoitza bere bizimoduagaz dabilela, eta ohituta gaudela gauzak besteei delegatzen.

Zer iritzi duzu Ezker Abertzaleak bizi duen egoerari buruz?
Momentu historikoa bizi dugula pentsatzen dut. Ezker abertzaleak egindako barne hausnarketak eta bere ondorioek aukeraz betetako eszenatokia sortu dute; aukeraz, eta, segurutik, arriskuz ere bai. Apustu horri buru-belarri ekin behar zaio orain. Ilegalizazio mehatxua hor dago, arrazoirik ez dagoen arren sortu berri den proiektu hori ilegalizatzeko. Ea Espainiako gobernuak eta auzitegiek zer egiten duten. Ilusioz ikusten dut egoera. ■ A.Ugalde

Aritz Otxandiano •
Otxandioko alkatea

- 31 urte dauzka
- Batia plataformako kidea

“Pena emango dit Herri-olaren garapena hurretik ez jarraitzeak”

> Bideoa: www.anboto.org

Dekorazio integrala.Giro freskoak

Estilo ugaritasuna altzarietan zein osagarrietan, dekorazio garaikidearen funtsezko gakoetara gerturatzeko.
Ehundura metalizatua, kolore iradokitzaileak, berrikuntza kromatiko izugarria, benetako larruen imitazioa, etab.

Espazioak sortzen ditugu, monotonia hautsiz, elementu ez ohikoak erabiliz horretarako, eta argia eta kolorea ere bai, paper garrantzitsua jokatzen dutenak

ALKI
decoración de interiores
Mikeldi 6 • 48200 Durango • Tel.: 94 681 38 95

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Herriaren alde lanean tinko jarraituko dugu!

Urtarrilaren 25ean komunikabide espainol batzuetan eta PNVren web orrialdean Atxondoko PNVren batzordeak argitara emaniko oharra dela-eta zenbait gogoeta egin nahiko nituzke.

Idazki horretan hitzez hitz azaltzen denez, "David Cobos alkateak, herritarrak engainatuz, bere jarrerarekin AHTa herriarentzat kaltegarriena den ibilbidetik eraikitzea besterik ez du lortuko". Lehenik herriari argitu nahi nioke AHTaren inguruko erabakiak ez dituela Davidek bakarrik hartzen, ni ingurumen gaietan arduraduna naizen heinean, bion artean eztabaidatu, abokatuarekin kontsultatu eta ondoren herriarentzat onuragarriena deritzoguna erabakitzen dugu.

Zentzu honetan, zehaztu nahi nuke beti defenditu izan dudana Atxondorentzat eta Euskal Herriarentzat, hoberena AHTa ez eraikitzea dela; proiektu hau bertan behera uztea, alegia. Eta udalean helburu hori lortzeko egin izan dugu lan eta aurrerantzean ere, zalantza gabe, bide horretan lan egingo dugu. Gainera, gure hitzak ez dira hitz soilak, arrazoiak dira: AHTa ez eraikitzea, proiektua bertan behera uztea hoberena dela diogunean, hori sostengantzen duten arrazoi sendoak ditugulako diogu ingurumena zaintzeko grina, AHTa bultzatzen duen eredu sozioekonomikoa gizartearen interesen aurkakoa delako, inposaturiko proiektu bat delako,...; are gehiago, AHTa gelditzeko lan egin dugula frogatzen duten datu zehatzak ere baditugu, izan ere, herria AHTaren inguruko gaiez ondo informatuta dugu, eta 4 urtez desjabetzak eta zundaketak atzeratzea lortu dugu. Ez da gutxi!

Baina PNVk, beste zereginik ez eta herriaren interesen kontra jardutea leporatzen digu. Herriaren interesa benetan AHTaz ahaztea dela gogoratu nahi nieke; eurek, ordea, AHTaren alde daude, eta, ondorioz, eurak dira zuzenean herriaren interesen kontra dabiltzanak. Are gehiago, ez da ahaztu behar AHTaren jatorria den Planari (PTSa) herri honen izenean oniritzia PNVko alkate batek eman ziola; zergatik ez zioten orduan herriari galdetu? Beldur zirelako.

Ez hori bakarrik, gogoratu beharra dago AHTaren inguruko herri galdeketa antolatzen genbiltzanean zenbait bilera egin genituela orduko alkate-ordearekin, eta honek herritarrek legeari jarraiki beren sinadurekin eskatutakoari, herri galdeketa egiteari muzin eginez, herri kontsulta burutzea ukatu zuen. Horregatik, izugarrizko hotza egiten zuen egun hartan kalean egon ginen, udalak herri galdeketa antolatzea ukatu, eta, gainera, udal baliabideak, guztionak, erabiltzen ez zigulako utzi. Herriari hitza eta erabakia ukatu nahi izan zion, baina herritar talde baten laguntzaz Atxondoko AHT Gelditu! Elkarlanako kideok eskubide hori errealitate bihurtu genuen, eta 2007ko martxoaren 25ean argi utzi genuen atxondarrok AHTaren kontra geundela.

Nahikoa ez eta, Atxondoko PNVko Batzordeak bere adierazpenetan zera gehitzen du: ez dakitela "urtero aurrekontuetan AHTarentzako aurrikusten diren 12.000 euroak zertarako erabiltzen ote diren, zinegotzi baten senideen lurretatik AHTa kentzeko ez bada".

Zuen helburua min egitea bazen ederki lortu duzue, bai niri, baita nire guraso eta lagunari ere. Ezaguna den legez, euskal gizartearen onurarako, inolako sari pertsonalik bilatu gabe, nire indar guztiak AHTa gelditzea lortzeko borrokara bideratzen ditut, horrek suposatzen duen kostu pertsonal eta profesionala alde batera utziz.

Gure AHTaren aurkako ekinaren aurrean PNVtik mespretxua besterik ez dugu jasotzen. Alderdi horren zinegotziek hainbat alditan zera galdetu izan didate, mespretxuz: "Zuk uste al duzu AHTa zuk geldituko duzula?". Nire erantzuna, berriz, beti berbera izan da: Nik ez diot AHTa nik geldituko dudanik, baizik eta herritar guztiok batuz gero, AHTa gelditzea posible dela; eta ni horretan nabil buru-belarri.

Bi pertsonaren artean 4 urtez zundaketak atzeratzeko gai izan bagara, ez al dugu ba herritar guztion artean AHTa geldituko? Noski baietz!

Bitartean PNVk bere indar guztiak zinegotzioi min pertsonala egitera bideratzen ditu. Prentsa arrosaren antza duzue. Diru publikoa zinegotzi baten edo haren familiaren interesen alde erabiltzea prebarikazioa da; eta uste baduzue hori egin dudala, epaitegietara jotzea besterik ez duzue. Nire aldetik, esanikoa zuzentzen ez baduzue, ez dut baztertzen epaitegietara jotzeko aukera.

Nik argi daukat borroka honetan tinko jarraituko dudala, baditudalako mila arrazoi guztion artean hau gelditzea posible dela baieztatzen didatenak; eta herritarrak ere, AHTaren aurka ekitera animatzen zaituztet, bide onetik goaz, eta ekin diezaiogun!!

Bukatzeko, eskerrik asko etxekoei, Gorkari, eta David eta Milari, ohore bat da borroka honetan zuek bezalako bidelagunak izatea.

Bihar arte, bihar ere lanean ikusiko gara-eta.

Onintze Oleaga - Atxondo

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Sei hankako mahaia

Juan José **Gaztañazatorre**
PP

Durangoko udal kudeaketa

Duela urtebete iragarri nuen: PNV eta PSE alderdien arteko aurrekontu akordioa paper bustia da, ezerezean geratu da. Joan zen urtean zehar udalak ez zuen durangarren bizi-kalitatea hobetu duen ekintza esanguratsu bakar bat bera ere aurrera atera. Gobernu taldearen iniziabita eza nabarmena da. Aurrekontuak onartuta egonik ere, onartu ziren inbertsioetatik bat ere gauzatu ez den urte bat izan da, eta beste gai batzuei dagokienez oraindik zain gaude guk egin eta onartu ziren zuzenketak errealitate bihurtu daitezen.

PNVren kudeaketa dudan jartzekoa da, eta eurekin aurrekontuak adostu zituztenen ardura ere bai

Ondorio moduan esan dezakeguna da PNVren kudeaketa zalantzan dagoela, eta eurekin akordioa egin zutenek hartutako konpromisoak bete diren zaintzeko zeukaten ardura hutsaren hurrengoa izan dela.

Aurten gertaerak zelakoak izango diren zain gaude. Aurrekontuak udalbatzarrean eztabaidatzeko garaiaren ateetan gaude; aurkeztu diguten zirriborroa kontinuista da, austeroa dela diote baina ez da egia. PPkook udalerriaren beharrizan sozialei hobeto erantzuteko apustua egiten dugu, sen ona erabiliz. Egoera ez da gastu eta inbertsio handiak egiteko modukoa, udal politika arduratsu eta zuzena egitekoa baizik. Ikusiko dugu gure irizpidea kontuan hartzen duten ala ez. Esperantza ez da inoiz galtzen, baina ikusiak ikusi ondoren, beste behin ere beldur gara Durangok eta durangarrak izango ote diren kudeaketa txar baten ondorioak ordainduko dituztenak.

** Erredakzioan itzulia*

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2011ko otsailaren 18a - 9. urtea - 404 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia

Eta honako udal guztiak: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Manaria, Otxandio, Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde, Aritz Maldonado.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

KULTURA>

MUSIKA> ELKARRIZKETA

"Gidoirik barik jarduteko gogoa neukan, eta Cortésekin egin liteke"

Orain urte bi plazaratu zuen 'La Diferencia' diskoko kantak eskainiko ditu gaur **Albert Pla**k Elorrioko Arriolan. Duela bi hilabetetik egiten diharduen moduan, Diego Cortés gitarristagaz eskainiko du emanaldia; sortzaile bien elkarlanaren emaitza bertatik bertara bizi beharrekoa da. Plak azaldu digunez asko dauka inprobisaziotik.



'La Diferencia' ikuskizuna aurkeztera zatoz Elorriora, berezitasun handi bategaz, gainera.
Elorriora daramadana ez da zehatz *La Diferencia* diskoa aurkezteko azken urte bietan egiten nabilena. Hona Diego Cortésegaz etorriko naiz, eta hemengo eta hango kantak eskainiko ditugu. Ia zer ateratzen den...

Orain arte zuk bakarrik jardun izan duzu 'La Diferencia' aurkezten eszenatokian. Zelan sortu da Cortésegaz kolaboratzea?
Apur bat faltan botatzen nuen-eta... Eszenara gidoirik barik ateratzeko gogoa neukan berriro, eta Diegogaz hori egin liteke: bururatzen zaizkizun kantak joan zaizkezke kantatzen, eta zu jarraitzeko gai da bera. Orain hile bi inguru hasi ginen elkarregaz.

Zelan joan dira orain artekoak?
Diego Cortésegaz beti ateratzen da dena ondo, ezinezkoa da beragaz ezer txarto irtetzea.

Sabadellekoak zarete biak. Beragaz lehenago ere jo duzu?
Txikitatik ezagutzen dut, eta asko gustatu izan zait beti gitarra zelan jotzen duen. Orain 10-15 urte bere taldeagaz, Jaleo taldeagaz, ikuskizun bat prestatu genuen. Ondoren ere erdi inprobisatutako, erdi zelan jakin bako kontzertuak egin izan ditugu elkarregaz. Badaramagu denboratxo bat elkarlanean.

"Txikitatik ezagutzen dut Diego, eta gitarra zelan jotzen duen asko gustatu zait beti"

Zer eskaintzen dio Cortések espektakuluari?
Diegoren gitarra oso boteretsua da: hori da ikuskizunaren ardatza. Horren inguruan istorioak kontatzen joaten naiz ni. Egia esan, oraindik ez dakit zelan egiten dugun; publikoaren eta lekuaren araberakoa ere izaten da emaitza...

Zenbat dauka inprobizaziotik egiten duzuenak?
Batzuetan ehuneko ehuna, beste batzuetan 90, inoiz 80... Diego Cortés apur bat ernegatzen duen arren, asko dauka inprobisaziotik.

Bera beste era batera lan egitera dago ohituta?
Bai eta ez... Guk egiten duguna, baina, ez da lana. Elkartu egiten gara gu, eta jo egiten dugu: kitto. Ez dugu hori baino gehiago egiten.

Emanaldiak prestatzeko entsegurik egiten duzue?
Ez, ez... Behar genukeen arren ez dugu entsegurik egiten.

Zuzenekoan gitarra elektrikoa jotzen duzu orain ere?
Bai. Batzuetan plazera izaten baita Diego jotzen ari dena apur bat zapuztea (barreka).

Lehen ere zu arduratzen zinen ikuskizuneko argiez etab. Gehiago jarduten duzu horretan orain?
Bai, gehiago aritzen naiz azalpenak-eta ematen, edo Diegok zer ondo jotzen duen entzuten...

Zelan egiten duzu lan? Zelan sortzen dira letra eta istorioak?
Lanik ez dut egiten: aspertzen naizenean-eta bururatzen zaizkit gauzak. Musikak, ideiak, letrak... horrela etortzen zaizkit. Batzuk ahaztu egiten dituzu gero...

"Aspertzen naizenean bururatzen zaizkit gauzak: egiten dudana ez da lana"

Beste proiekturik badaukazu?
Orain hilabete estreinatu genuen Pascal Comelade musikariagaz egin dudan *Somiatruites* ikuskizuna. Nik testuak eta berak musikak ipini ditugu. Orain, udaberrira arte Katalunian jardungo dugu jotzen, eta gero Espainian zehar erakutsiko dugu.

"Asteburu honetan Madrilera eta Iruñera ere joango gara zuzenekoa eskaintzen"

Azken egunetan sorkuntzarako astirik atera duzu?
Joan zen barikuan Sorian eta zapatuan Burgosen egon nintzen jotzen, eta bueltako bidaia egin genuen atzo. Gaur heldu naiz etxera, eta deskantsatzen egon naiz. Asteburu honetan Madrilen eta Iruñean ere joko dugu. ■ I.E.

Jolasa, ironia, zentzu bikoitza, isiluneak... 'La Diferencia'

Bere proiektuak edo bere ekoizpenak, bere kantak edo bere ideiak komunikabideen bitartez hedatu gura dituzten lagunak elkarrizketatzera ohitutako kazetariarentzako esperientzia berezia da Albert Pla lako pertsonak elkarrizketatzea.

Bere diskoetan eta espektakuluetan ironiagaz eta zentzu bikoitzekin jolasten du asko Plak; berba egiterakoan, itxurakeriatik batere ez daukala ematen du. Gauzak sinple-sinple, sentitzen dituen moduan adierazten dituela ematen du.

Isiluneekin jolasten du elkarrizketan, edo ez du uste esanguratsua den ezer gehigo gehitzerik daukanik. Gaitza da jakiten oholtzako pertsonaiaren eta pertsonaren artean alderik badagoen; zenbatekoa den.

Arriolan zuzenean eskainiko duen *La Diferencia* proiektuko izen bereko kantan esaten duen moduan, elkarrizketetan ziurtasunik eza adierazi gura duela ematen du: "zuria eta beltza", "ona eta txarra", edo "gordina eta surrealista" desberdintzen dituen muga zer lausoa den erakutsi gura digula.

Bi urte hauetan aurkezten jardun duen *La Diferencia*ren emanaldietan, duela hilabete bira arte, kantatu, bere abestietetako letretan jasotako istorioak azaldu, eta eszenatokiko sabaian ipinitako koloretako argiekin jolastu izan du, besteak beste, Plak. Cortésen gitarrak doinua ipinita, are "libreago" jardungo ei du Elorrion.

PROGRAMAZIOA> EMANALDIAK

Asteburuan 'Vaya Semanita' eta hari-orkestra San Agustinen

Sarrera guztiak saldu dira 'Vaya Semanita' lanaren emanaldi bietarako

Antzokirako berezi eta berritzaile diren ikuskizun bi dituzte Durangoko San Agustinen astebururako programatuta: orain zortzi urtetik Euskal Telebistako bigarren katean eman duten *Vaya Semanita* programaren moldaketa da bihar, otsailaren 19an, Durangoko antzokian, emanaldi bitan eskainiko dutena. San Agustinetik asteon azaldu dutenez, sarrera guztiak saldu dituzte Andoni Agirregomezkorta, Javier Anton, Itziar Atienza, Iker Galartza, Mañu Elizondo eta Leire Ruiz aktoreen biharko emanaldietarako; 20:00etan hasita lehenengo emanaldia eta 22:30ean bigarrena.

> Familia osoarentzako hari orkestra kontzertu didaktikoa domekan

Domekarako, familia osoarentzako hari orkestra kontzertu didaktikoa eskainiko dute San Agustin kulturgunean: otsailaren 20an, 18:00etan da emanaldia. Musikaren historiako sortzailerik esanguratsuenen musika eskaintzen du Azer Lyutfaliev-ek zuzentzen duen taldeak; besteak beste, Mozart, Bach eta Vivaldi-ren obrak interpretatuko dituzte, sei urtetik gorako ikuslegoarentzako pentsatutako ikuskizunean. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Sukaldeko distirak

J.M. Urrutia, 'Txotxe'
Irakaslea

Etxeko sukaldean nago zutabetxo honi hasiera ematen, irratia lagun dudalarik. Leihotik begiratzerakoan nire auzokideen leihoetan telebistek sortzen duten distirak ikusten ditut. Batzuk, oraindik, ase gabe, futbolak utzitako arrastoak behin eta berriro ikusiz eta beste batzuk Goya sarien gorabeherak ikusten, pentsatzen dut nik. Nik ez dut ez bata ez bestea ikusiko, baina aukera izango banu Goya sarien banaketa izango nuke gustuko telebistako ikusle bezala. Ez dakit inoiz gertatu izan zaidan horrelakorik, baina sarietarako izendatu dituzten hiru film garrantzitsuenak, bakoitza bere diskurtso, estetika zein istorioarekin bikainak iruditzen zaizkit; *Balada Triste de Trompeta*, *Pa Negre* eta *También la lluvia*.

Nire sukaldeko argiak ez du telebistak sortzen duen distira, eta apaletik irratiak musikarekin alaitzen nau. Begiak itxi eta film horiek utzi didaten arrastoa topatzen saiatzen naiz. Egia esaten badizuet ez zait zaila egiten, denbora gutxi baita ikusi ditudala. Berriro ere begiak zabaltzerakoan *Pa Negre*k utzi zizkidan sentsazioak nagusitzen dira. Askotan galdetu izan dut Gerra Zibilaren ostean zerk eraman zuen gizarte oso bat hezurretaraino beldurtzera, kikiltzera, isiltzera eta kasu askotan ahaztera. Galdera horiei erantzuteko gehienetan gizon uniformatuak ikusten nituen armak eskuetan, eta beltzak baino beltzagoak ziren gurutzeak eskuetan zeramatzaten apaiz batzuk. Baina herritarren ahotsa falta zitzaidan. Zer zen bizi, sentitu zutena? Nola egin zioten aurre errealitate berriari?

Agustí Villalongaren filmak, guda lekuetatik urrunduz, errealitate konplexu hauetara eramaten gaitu, eta kontraesanez beteriko pertsonaien bitartez argira ekartzen digu herritar hauen ahotsa. Ni epaimahaikide banintz *Pa Negre*ri emango nizkioke sari garrantzitsuenak. Biribila iruditzen zait filma, eta eskuan dardara izpi barik izkiriatzen dut maisuki irudikatzen dituela Gerra Zibilaren ondorioak Estatu Espainiarrean.

ERAKUSKETAK> MARGOLANAK ETA ARGAZKIAK

Larrañagaren koadroak Durangon eta Uriberen argazkiak Berrizen

Durangoko Ezkurdi aretoan daude ikusgai Larrañaga markinarraren margolanak, eta Berrizko Kultur Etxean Julen Uribe argazkilariaren lanak



Domeka arte izango dira Jose Agustin Larrañaga margolari markinarraren koadroak Durangoko Ezkurdi erakusketa aretoan ikusgai. Ukitu inpresionistagaz landutako paisaien irudiak dira Eibarren bizi den pintoreak erakusketarako bildu dituenak; argiaren errepresentazioan eta kolorearen erabilpenean indar berezia jarrita egindakoak dira koadroak.

Bizkaiko eta Gipuzkoako kostaldeko hainbat paisaiak, eta Durangaldeko nekazal inguruetako zenbait ikuspegi daude besteak beste, erakusketan; Atxondoko eta Durangoko irudiak, esaterako.

Jazz argazkiak Berrizen

Julen Uribe argazkilari berriztarrak jazz musikariei egindako argazkien bilduma da, bestalde, Berrizko Kultur Etxeko sarreran otsailaren 27a arte ikusgai dagoena. Euskal Jazz Argazkiak izeneko erakusketan, argazkigintzan bestelako hainbat gai ere jorratzen dituen Uribek zuzeneko musika emanaldietan egindako argazkiak ipini dituzte ikusgai.

> Uribek jazzlariei zuzenekoetan egindako argazkiak Berrizen

Euskal Herriko hiriburuetako uda sasoiko jazz jaialdietako kontzertuetan Julen Uribek bere kameragaz harrapatutako uneak dira; saxo-jotzaileei, kontrabaxu- edo piano-jotzaileei egindako gertuko erretratuak. ■ I.E.

KORRIKA> LEHIAKETAK

'Euskalaketa ' bakarrizketa lehiaketa antolatu dute

Laster gure herrietara helduko den 17. Korrikaren egitarauaren barruan jaso dute lehiaketa

Apirilaren 7tik 17a arte Euskal Herria zeharkatuko duen Korrikaren 17. ediziorako AEK-k antolatu dituen ekimenetariko bat da aurten lehenengo edizioa duen *Euskalaketa* izeneko bakarrizketa lehiketa.

Antolatzaileek asteon jakinarazi dutenez, martxoan burutuko dituzte kanporaketa saioak, eta Korrikaren amaieragaz bat eginda, apirilaren 17an, Donostian jokatuko dute finala.

Otsailaren 28rako, *korrika17@gmail.com* helbidean eman beharko dute izena lehiaketan parte hartu gura dutenek: izen-abizenak, parte hartuko duten herrialdea, telefonoa eta posta elektronikoa jakinarazi beharko dituzte bertan.

> Gai librean eta "Euskalakari" berbaren inguruan jardungo dute

Guztientzako berdina izango den lan bi egin beharko dituzte parte-hartzaileek euren bakarrizketan: bakoitzak gai libreko zortzi minutuko bakarrizketa egingo du lehenengo; ondoren, guztiek "euskalakari" berbaren inguruko bost minutukoa.

Antzerkizale Elkarteak izendaturiko epaimahai batek erabakiko du nor den lehiaketaren irabazlea, eta bi pertsonentzako Kariberako bidaia izango da sari nagusia. Herrialdeetako irabazleek aste bukaerarako egonaldiak jasoko dituzte saritzat. ■ I.E.

> Apirilaren 17an Donostian jokatuko dute lehiaketaren finala

2012ko egutegiaren argazki lehiaketa

hartu egizu parte!

Oinarriak:

anboto.org

12 hile 12 herri

anboto komunikabideak

ARTEA> ELKARRIZKETA

Estetikaren filosofiari buruzko lana kaleratu du Aitor Aurrekoetxeak

Unibertsitatean irakasten duen estetikaren filosofiari buruzko euskarazko lehenengo liburua kaleratu du, Hiria argitaletxeagaz, **Aitor Aurrekoetxea** irakasle durangarrak. *Estetika modernoaren inguruan hainbat hausnarketa euskaraz* dauka izenburua liburuak, eta egilearen ahotik jaso dugu liburuko gaien berri

Zelan sortu zaizu liburua argitaratzeko aukera?
Badaramatzat hamar urte unibertsitatean Arte Teoriari buruzko Filosofiaren Estetika ataleko klaseak ematen, eta irakaskuntzan hasita ohartu naiz gaiari buruzko materialik ez daukagula euskaraz. Euskarazko klaseak eman ahal izateko, itzulpengintza, asmagintza eta egokitzapen lana egin behar izan dugu. Gutxinaka, *corpus* bat osatzen joan naiz material horrekin, eta hausnarketa propioekin uztartuta argitaratu dut liburuan.

Ikasleentzako izan daiteke bereziki erabilgarria liburua?
Bai. Arte Historia eta Filosofia ikasketetan dihardutenentzat eta estetika modernoari buruz interesa daukatenentzat izan daiteke bereziki erabilgarria. Liburuan XVIII. mendetik XXI.era arteko ibilbidea jaso dut. Funtsezkoak diren zenbait pentsalariri buruzko gogoetak egin ditut, euren ezaugarri inportanteenak azpimarratuz. Lehenengo aldia da halako lan bat euskaraz egiten dena: estetikari buruzko argitalpenik ez da aurretik euskaraz egon.

> "Funtsezkoak diren pentsalarien teoriak azaldu eta gogoetak tartekatu ditut"

> "Kant-ek eman zuen esperientzia estetikoari buruzko definizio osoena"

Zeintzuk dira estetika jorratu duten funtsezko pentsalariak?
Kant, Schiller, Baudelaire, Émile Zola, Victor Hugo, Duchamp... Filosofo eta pentsalari gehienek esan dute zerbait estetikaren inguruan; antzinakoek ere bai: Platonek, Aristotelesek.... Estetika, filosofiako disziplina gisa, baina, XVIII. mendean jaio zen: horrek baldintzatu egiten du disziplina, modernitatearekin nahasten delako. Disziplinaren oinarria da etiko (badakigu zer dagoen ondo eta zer dagoen txarto), metafisiko eta logiko izateaz gainera, estetikoak ere bagarela gizakiok. Uneoro jasotzen dugu informazio estetikoa; koloreen bitartez, formen bitartez, etab. Eta hori guztia antolatu egin behar dugu gure buruan. Hori guztia da estetika. Ezin daitekeena egin, estetika kosmetikarekin nahastea da: gure eremu geografikoan sarri nahasten dira estetika eta ile-apaindegia...

Zein da estetikaren filosofiaren egiteko zehatza?
Estetikak kontzeptualizatu egiten du artea, hainbat gogoetaren bitartez: "Zergatik daukagu esperientzia estetikoa?", "Zergatik bizipen estetiko batzuek sentiberatasunarekin daukate zerikusia eta beste zenbaitek ez?"... Galdera hauek egin eta erantzuten saiatzen da, besteak beste, estetikaren filosofia.

Arte garaikideari begiratzeko ere baliagarri dira autore klasikoen teoriak?
Funtsezkoak dira: Kantek eman zuen oraindik gainditu barik dagoen esperientzia estetikoaren definizio bat: "hiru fakultateren (entendimendua, sensibilitatea eta irudimena) arteko jolas librea". Pentsalari guztiek zeukaten estetikari buruzko lege unibertsalak ateratzeko helburua.

Estetikarena ez da gai subjetiboa, beraz?
Hain justu horixe da estetikaren arazo garrantzitsuenetako bat; subjetibotasuna. Ematen du kontraesana dela zerbait subjektibotik lege objektibo bat ateratzen saiatzea, baina horretan saiatzea da oinarria. Askotan esaten da "gustuei buruz ez dagoela ezer idatzita", baina badaude zenbait ezaugarri unibertsal.

Zeintzuk izan daitezke ezaugarri amankomun horiek?
Adibide oso muturreko batekin azalduta: New Yorken bizi den eta arte galeria batean lan egiten duen gizon edo emakume sofistikatuenak baditu arteari buruzko hainbat bizipen eta esperientzia Papuako tribu bateko lagun batekin amankomunean.

Zerk baldintzatzen du gehien gure esperientzia estetikoa?
Egungo zalantzarik handienetakoa da erreproduzitzeko baliabide teknikoek zelan eragin duen gure esperientzia estetikoan: hainbeste erreprodukzio ikusi eta gero, Sofia Museoan Picassoren "benetako" Gernika ikusten dugunean zelan bizi dugun. ■ I.E.

KIROLAK >

“Gure helburua mailari eustea da, eta horretarako gabiltza beharrean”

Zulotik atera eta ohorezko mailari eusteko helburuagaz heldu da Loiti Berrizera.

JOSE MANUEL LOITI

Jaioterria:
Durango
Adina:
46 urte
Ibilbidea:
- Abadiño futbol taldeko kadeteak (taldea mailaz igotzea lortu zuen)
- Eibar (beheko taldeak): Hiru urte kadeteetan eta hiru urte gazteetan
- Zornotza futbol taldea

J.M. Loitik ardura hartu duenetik, egoerari buelta ematen hasi da Berriz. Jokatu dituzten azken sei puntuetatik lau lortu dituzte. Hala ere, azken postuan jarraitzen dute; salbazioa bost puntura daukate oraindino.

Duela bi aste heldu zinen Berrizera. Zelan ikusi duzu taldea?
Hasieran dudak neuzkan, taldekideen egoera zelakoa izango ote zen, baina gogo handiagaz ikusi ditut jokalariak. Taldea gaztea da, eta zulotik irteteko aukera duela sinesten du. Animikoki ondo daude, eta bi asteotako lanagaz, entrenamentuekin eta partiduekin, oraindino eta gehiago sinesten dugu mailari eusteko dugun aukera horretan.

Eta taldeak zu, zelan hartu zaitu? Nolako harrera egin dizute?
Entrenatzaile aldaketak beti dira onak. Zergatik? Normalean jokatzen ez duten jokalariek aukera bat ikusten dutelako, abagune bat; entrenamentuetan gehiago saiatzen dira. Titular sentitzen denak ere, jokatuko duela uste duenak, ondo hartzen du. Entrenatzaile aldaketa emaitza txarren ondorio da. Eta emaitza txar horiek taldeak ondo ez jokatzearen ondorio dira. Aldaketa guztiak positiboak dira.

“Gogotsu ikusi dut taldea. Zulotik irteteko aukera ikusten dute jokalariek”

Azken sei puntuetatik lau lortu dituzue. Dinamika onean sartu zaretela dirudi, ezta?
Bai. Lehenengo aurkaria Basurto izan zen; beheko postuetako talde bat. Zer edo zer ateratzeko aukera ona zela pentsatzen genuen; berdindu egin genuen, partidua irabaztea merezi genuen arren. Puntu bat lortu genuen, eta genituen bajak kontuan izanda, ondo dagoela pentsatzen dut. Aurreko astean, berriz, taula erdialdean dagoen Apurtu Arteren aurka leihatu ginen. Partidua irabazi egin genuen; egia esateko, ondo irabazi genien, gainera. Amaieran estutu egin gintuzten, baina, emaitza labur geratu zen.

15 jardunaldi falta dira txapelketa amaitzeko. Maila mantenduko duzuela uste duzu?
Bai, noski. Hori da gure helburua, eta hori lortzeko gabiltza guztiok beharrean. Gauza bakarra eskatu diet jokalariei: azken hilabetera, azken lau partiduetara, bizirik heltzea; hau da, maila mantentzeko aukerekin heltzea. Arinago bada, hobe, baina egoera hau denboraldia amaitu arte geugaz eroango dugu, salbazioa bost puntura dugu-eta. Azken bi partiduetan puntuatu ondoren, puntu bakarra moztea lortu dugu. Taldera heldu nintzenean, sei puntura geneukan salbazioa, eta orain bost puntura dugu. Beste taldeak ere puntuatzen dabiltzala esan gura du horrek.

Eta zeintzuk izango dira maila mantentzea lortzeko gakoak?
Formularen jabe ez naiz, bestela ez ginateke honela egongo (barrez). Taldeak kalitate handiko jokalariak ditu; modu batera jokatzen jardun dute, eta nik beste modu batera jokatzeko eskatuko diet. Helburua puntuak lortzea da. Maila horretan asko jokatzen da goitik, bigarren jokaldiak daude, estrategia erabiltzen da... ezaugarri horiek alboratu barik, beste modu batera jokatzeko eskatuko diet: baloia gehiago edukitzeko eskatuko diet, hain zuzen ez jokatzeko; hegalak erabiltzeko... Horretan saiatuko gara. Hala ere, garrantzitsuena emaitza positiboak lortzea da.

Fitxatu al duzue norbait?
Maila honetan, taldeetako jokalariek soldatak dituzte. Berrizek, berriz, filosofiagatik partidukako pizgarriak eskaintzen ditu. Gaitza da bilatzen duzun hori ekartzea, beraz. Zuzendaritzari aurrerako eta atzerako jokalariak eskatu dizkiot; batez ere, atzeko postuetarako jokalariak behar ditugu. Gainera, baja garrantzitsu bat izan dugu; Jon Acedok denboraldi osoa galduko du lesio bat dela-eta.

“Gauza bakarra eskatu diet jokalariei: azken lau partiduetara bizirik heltzea”

Jardunaldi honetan Ugeruagaren aurka jokatuko duzue. Zer asmo daukazue?
Bost puntura dauzkagu; partidu garrantzitsua da eurentzako ere, beraz. Gu hara puntuatzera goaz; etxetik kanpora puntuak lortzea positiboa da. Hala ere, baja garrantzitsu bat dugu, gainera; Raul Ramos kapitainarena, hain zuzen ere.

Berrizek urte ugari darama Ohorezko Mailan, ardura handia sentitzen al duzu?
Ardura handia da, baina ez nau kezkatzen. Horrelakoa naiz. Nik guztia emango dut, betiko moduan. Egon naizen talde guztietan sentitu dut ardura bera.

Eta entrenatzaile lanean, erronka legez hartzen dozu?
Bai. Batez ere, horregatik onartu dut eskaintza. Oso gustura nengoen Zornotzan, baina Ohorezko Mailan entrenatzea erronka handia da. ■ A.M.

San Simon golf txapelketa jokatuko dute bihar Diman

San Simon txapelketa jokatuko dute bihar Dimako golf zelaian. 2011ko rankingerako puntuagarria izango da txapelketa hau, eta hiru mailatan banatuko dituzte parte-hartzaileak; jokalarien handicaparen arabera banatuko dituzte mailak. Goizeko 10:00etan hasiko da txapelketa, eta ondoren odoloste-jana egongo da.

Rankinga hamalau txapelketek osatzen dute, eta horietako hirugarrena da San Simon. Urtarrilean hasi ziren txapelketak: lehenengoa Erregeetako Txapelketa izan zen; bigarrena, berriz, Txotx Txapelketa. ■ A.M.

Berasaluze eta Apraiz laugarren garaipenaren bila

Hil ala biziko partidua jokatuko dute etzi Berasaluzek eta Apraizek. Logroñoko Adarraga pilotalekuan Berasaluze VIII-Apraiz eta Titin III-Pascual bikoteek jokatuko dute. Partidu garrantzitsua da bi bikoteentzat; Binakako Txapelketako ligaxkan berdindurik daude lehiatuko diren bi bikoteak, hiruna garaipenekin.

Binakako Txapelketako zortzigarren jardunaldia ospatuko dute asteburu honetan. Lehenengo lauak sailkatuko dira finalerdietarako. Berasaluze VIII.a eta Apraiz laugarren postuan daude. ■ A.M.

Agirrebeitia 21. izan da Italiako Hell´s Gaten

Denboraz kanpora izan bada ere, Jon Agirrebeitia berriztarrak 21.postuan amaitu du Hell´s Gate lasterketa. Bigarren aldia izan du Munduko Txapelketako lasterketa honetan. Beste lasterkari bat aurreratzen zebilela, lurrera jauzi zen Agirrebeitia; hala ere, lasterketa 21. amaitu eta arratsaldeko proban parte hartu ahal izan zuen berriztarrak. Proba Graham Jarvisek irabazi zuen.

Aurten Munduko Txapelketako hiru probatan aritzeko asmoa agertu du Agirrebeitiak. Italiako proba horretan parte hartu ondoren, berriztarraren asmoa ekainean Austrian ospatuko den Erzberg Rodeon parte hartzea da. ■ A.M.

Mallabiak gogor ekin dio lidergoaren defentsari

Lehenengo zatian Kurutziagak liderrari eustea lortu zuen. Bigarren zatian, aldiz, gol festa egon zen euskal ligako derbian (1-8).

Ligako talderik golegileena zergatik den erakutsi zuen Mallabiak. Juanra De la Cruz

Mallabiak sendo eutsi dio lidergoari lehenengo aupadan. Derbian 1-8 gailendu zitzaion Kurutziagari. Emaitza engainagarria izan daiteke, hala ere; lehenengko zatian, 0-1 eutsi zion Kurutziagak Mallabiari. Bigarren zatian, berriz, zazpi gol gehiago sartu zituen Mallabiak; horietako sei Yerai Vazquezek sartu zituen, gainera. Bigarren sailkatuak, Inter taldeak, 6-5 galdu zuen; bigarrenarekiko aldea bost puntura handitu du, horrenbestez. Domekan Aurrera de Vitoriaren aurka jokatu du Mallabiak. Gasteiztarrak beheko postuetan daude, aukera polita dute mallabitarrek lidergoari eusteko, beraz. Orain, Mallabia euskal ligako liderra da 38 puntugaz, eta talderik golegileena da, gainera.

Kurutziaga, ostera, beherago dago sailkapenean; 17 puntu dauzka eta hamaikagarrena da. Hala ere, taularen erdialdia puntu gutxira du. Sasikoa B taldea multzo horretan dago, 18 punturekin. Jardunaldi honetan Gasteizera doa Kurutziaga, UPV Arabaren kontra jokatzera. Sasikoa ere kanpoan arituko da; Kukuiaga taldearen aurka, hain zuzen ere. Kurutziagak zein Sasikoa Bk beharrezko dute puntu horiek poltsikoratzea, lasaitasunezko postuetara hurbildu gura badute, behintzat.

Sasikoa makal

Nazional A mailan, ostera, Sasikoak aukera ona galdu zuen hiru puntu poltsikoratu eta aurkari zuzen bat atzean uzteko. 3-5 galdu zuen Burlades taldearen aurka, eta kinka larrian jarraitzen du honenbestez. Bihar, 17:30ean, Aretxabaletaren kontra jokatu du Sasikoak. Aretxabaleta 10. postuan dago; aurkari zuzena du Sasikoak, beraz.

Nazional B mailan, ostera, Elorrioko Buskantzak goiko postuetan mantentzeko aukera ona dauka asteon. Bihar, 18:00etan, Oriokoren aurka jokatuko du; Orioko azken sailkatua da. ■ A.M.

> Gol festa batega estreinatu du lidergoa Mallabiak. 1-8 irabazi zion Kurutziagari.

> Sasikoak ez zuen aprobetxatu aurkari zuzen bat atzean uzteko aukera.

Adituaren txokoa

Unai Zamalloa
•Saskibaloi entrenatzailea

Koparen biharamuna

Igaro da asteburu koperoa, eta azkenean ez da sorpresarik egon; Regal F.C. Barcelona gailendu da 75. Kopa honetan.

Nahiz eta final laurdenetan partidu borrokatua eskaini, gureak ez dira fin ibili, beste taldeen maila ikusita. Bizkaia Bilbao Basket berandu konturatu zen Caja Laboral Baskonia momentu honetan ez dela talde sendoa, eta partiduak eskuetatik alde egin zion azken momentuan.

Final erdietan, Regal F.C. Barcelonak, nahi izan zuenean apurtu zuen partidua. Erraz. Indarrez. Botere handiz. Caja Laboral Baskoniak asko hobetu beharko du denboraldiko momentu erabakiorretan zerbait egiteko.

Finalean, Real Madridek ez zuen Barcelona gailentzeko itxurarik eman. Partidua kontrolpean izan zuten kataluniarrek, eta Anderson handi baten eskutik garaile nagusi agertu dira aurtengo kopa honetan. Talde haundia eta izarrez josia Regal F.C. Barcelona. Helduko ote da inor beraien mailara aurten? 2010eko finalean gertatutako errepikatzeko aukerak egongo ote dira aurten? Gauzak asko aldatu beharko dira.

Bukatzeko, Zornotza Saskibaloi Taldea eta zornotzar guztiak zoriontzeko aukera aprobetxatzen dut, kantxa berria estreinatuko duteeta zapatu honetan. Klubaren hazkundean beste pausu haundi bat. Zorionak!

Undak agur esan dio aurtengo denboraldiari

Belauneko lesioak osatzeko operatu egin dute Maider Unda borrokalari oletarra

Modurik gogorrenean agurtu behar izan du denboraldia Maider Unda oletarrak. Urte hasierako entrenamendu batean min hartu eta gero, operatu egin behar izan dute borrokalaria, eta hainbat hiletan lehiaketetatik kanpora egongo da, horrenbestez. Otsailaren 10ean operatu zuten Unda; zehazki, ezkerreko belauneko aurreko lotailu gurutzatua, alboko barnekoa eta kanpoaldeko meniskoa osatzeko egin zioten ebakuntza. Unda etxean dago jada, eta "nahiko ondo" dagoela adierazi du.

> "Ondo nagoenean itzuliko naiz, hau da, guztiz osatzea lortzen dudanean"

Denboraldiari agur esateaz gainera, hainbat hiletan lehiatu barik egon beharko du Maider Undak. Bere berbetan, guztiz osatzen denean itzuliko da. "Belauna osatzeaz gainera, burua ere landu behar da. Konfiantza berreskuratu behar dut".

Iazko borroka libreko Munduko Txapelketan bosgarren postua lortu zuen Undak. ■ A.M.

DRT aurrera egiteko aukera barik geratu da

Errege Kopan jokaturiko bi partiduak galdu dituzte Aratz Gallastegiren gizonek

Bi jardunaldi jokatu ondoren, txapelketan aurrera egiteko aukerarik barik geratu da DRT. Zapatuan Hernaniren kontra 10-55 galdu zuten durangarrek; Errege Kopan jokaturiko bi partiduak galdu ditu DRTk. Gallastegi entrenatzaileak ohar batean adierazitakoaren arabera, "kristoren jipoiak" jaso dituzte bi partidu horietan. Lehenengo jardunaldian, 44-26 galdu zuen DRTk Oviedo taldearen aurka. Sei taldek osatzen dute Errege Kopa, guztira.

Liga amaitu eta jarraian hasi zen Errege Kopa, eta horrek eragina izan du Gallastegiren ustez: "Ohorezko B Mailari eustea lortu ondoren, taldea erlaxatu egin da". Oharrean adierazitakoaren arabera, denboraldia amaitu arte arlo fisikoa lantzeari ekingo dio orain taldeak. Gallastegiren berbetan, aurtengo denboraldian beste taldeekiko aldea nabarmena izan da. ■ A.M.

Partidu biak galdu arren, gogor saiatu dira. Juanra de la Cruz

“Gehien faltan botatzen nuena eguneroko entrenamenduak ziren”

Jose Luis Mendilibarrek denboraldi honetarako eta hurrengorako kontratua sinatu du Osasunagaz: “Proiektu erakargarria neritzon eta barrutik ezagututa ustea berretsi dut”

Jose Luis Mendilibar Osasunako kamisetari eusten, Patxi Izko lehendakariagaz batera. C.A. Osasuna

Berriro ere futbolaren zurrunbilo zorora bueltatu da Jose Luis Mendilibar entrenatzaile zaldibartarra. Geratzen den denboraldi zatirako eta hurrengorako kontratua adostu du Osasunagaz, eta etapa berria “ilusioz” hartzen duen “erronka berria” dela adierazi du.

2010eko urte hasieran Valladolid taldea utzi eta Osasunagaz hasi den arte, eguneroko jardunaren falta dela gehien igarri duena dio: “Partiduetan aulkian egon eta taldea zuzentzea sentzazio betegarria da, baina asteburuetan makina bat futbol partidu ikusi ditut telebistaz, eta taldeak aztertzeko balio izan dit. Egia esan behar badut, gehien faltan bota dudana eguneroko lana izan da; entrenamenduak prestatzea eta gero zelaian lantzea jokalariekin”.

> “Kanpotik proiektu erakargarria zirudien eta barrutik ezagututa ustea konfirmatu dut”

Hauxe da liga hasita dagoela talde baten gidaritza hartzen duen lehenengo biderra, eta alde horretatik “esperientzia berria” izango da: “Liga hasieran hile batzuk hartu ditzakezu taldea ezagutu eta norabidea lantzeko. Orain, hile batzuk beharrean, egun batzuk bakarrik ditugu horretarako. Hala ere, taldeak gauzak onak baditu. Etxean ondo ibili da, eta horri eutsi behar diogu. Kanpoan dabil makal eta partidu horietan hobetu behar dugu”.

Mendilibarren esanetan, Osasunaren proiektuak asko erakartzen zuen kanpotik begiratuta: kluba, zaleak… Eta orain arte ezagutu duen apurrean, “kanpotik somatzen nuena konfirmatu egin dut”, dio pozez.

> Hauxe da liga hasita dagoela talde baten gidaritza hartu duen lehenengo aldia

Abentura berri horretan, Toni Ruiz prestatzaile fisiko kanariarra izango du alboan. Badira zortzi urte bien arteko lankidetza sortu zela, eta zaldibartarrak konfiantza osoa du beragan.

Durangoko Kulturalari buruz ere galdetu diogu. Aurten partidu batean ikusi du; 1-3 galdu zuten Laudioren kontra. Hala ere, hainbeste partiduren ondoren goian ibiltzea “ez da kasualitatea”, dio, “zorterik onena opa diot hemendik amaierara”. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Gernika
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran

LEHENENGO ERREGIONALA

Zaldua - Artibai
Zapatuan, 17:45ean, Solobarrian

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeño - Itugarpe
Domekan, 16:00etan, Tabiran

Zaldua B - Berriz B
Zapatuan, 15:30ean, Solobarrian

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Tabirako - Villamuriel
Zapatuan, 19:30ean, Landakon

LEHENENGO AUTONOMIKA

Tabirako - San Ignacio
Zapatuan, 17:00etan, Landakon

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Salesianos
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Mallabia - Aurrera Vitoria
Domekan, 17:30ean, Zaldibarko kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoko Lagun - Aurrera Beti
Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun

Elorrioko B - Hegalariak
Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko kiroldegian

Mendibeltz - Begoñazpi 86
Zapatuan, 16:30ean, Landakon

BIGARREN ERREGIONALA

Gu Lagunak - Egartsuak
Zapatuan, 18:00etan, Landakon

TRINKETEA

ESKUZ BINAKA 1.MAILA

M.Gonzalez - Martin/ R.Urlarte-I.Etxeberria
Zapatuan, 10:30ean, Tornosolon

Anbotopekoren lehen porrota etxetik urrun

Lehenengo bi sailkatuen arteko partiduan, Jarrilleros taldea 78-63 gailendu zitzaien

Anbotopekok denboraldiko hirugarren partidua galdu zuen Portugaleteko Jarrillerosen aurka; etxetik kanpora galdu duen lehenengo partidua izan da. Galdu arren, lidergoari eusten jarraitzen du Anbotopekok, hala ere, aldea puntu bakarrera moztu dute Jarrilleros eta Barrena Berrik.

Asteburu honetan, Lehenengo Erregionaleko 16. jardunaldia jokatuko dute. Bihar, Anbotopekok Aguilas Salesianos taldea hartuko du etxean, 19:00etan. Aurkaria beheko postuetan dago, aukera polita du puntuak eskuratzeko, beraz.

> Liderra izaten jarraitu arren, puntu bakarreko aldea du orain

Bestalde, EBA mailan, Tabirakok Villamuriel taldea hartuko du Landakon jardunaldi honetan. Partidua bihar jokatuko da, 19:30ean. Azkeneko jardunaldian, 69-58 galdu zuen Pieslagosen aurka; hiru partidu bakarrik irabazi ditu Tabirakok, eta azkeneko postuan jarraitzen du.

Emakumezkoei dagokienez, Tabirakok bihar jokatuko du, eta San Ignacio UPNA taldearen aurka lehiatuko dira. Aurreko jardunaldian, 53-43 galdu zuen Durangoko taldeak. ■ A.M.

Larrasoloeta estu eta Abadiño lasai xakean

Bizkaiko kluben arteko txapelketan Durangoko taldea puntu beharrean dago

Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketa amaitzeko hiru jardunaldi falta direnean, Abadiño xake taldea eroso kokatuta dago goren mailan. Ez da harritzekoa; izan ere, iaz nahita muzin egin zioten euskal ligari, hainbeste bidairekin nekatuta zeudelako. Aurten xakelari horiek (eta B taldetik igotakoek) gorenari aurre egiteko kapaz direla erakutsi dute. Larrasoloeta Durangoko taldea, aldiz, azken aurreko da orain, eta puntuak batu behar ditu.

Lehenengo mailan, Zaldi Baltzak gorenera bueltatu gura du aurten, baina igoera zaildu egin zaio, partidu bi emaitza argiekin galdu ditu-eta. Hala ere, joan zen asteburuan 4-0 irabazi zuten, eta horregaz, gutxienez, mailari eusteko pausu handia eman dute.

> Zaldi Baltzak gaitz du iaz galdu zuen goren mailara bueltatzea

Bestalde, gazteen txapelketan Jon Lagos, Alvaro Mintegi, Xabier Diaz eta Daniel Grigore ederto dabiltza kimu mailan. Benjaminetan Sergio Munilla eta Aritz Eder Elexperen jarduna eta haurretan Maitane Baras eta Enrique Garciarena ere azpimarragarriak dira. ■ J.D.

Totorikaguenak utzi egingo du pilota mundua

Hogeita bat urtez pilota munduari estu lotuta egon ostean, Aitor Totorikaguenak utzi egingo duela jakinarazi du; erabakia atzera bota ezina dela gaineratu du. Urte hauen guztien balantze positiboa egin du: “Hogeita bat urte hauetan asko gozatu dut, hala ere, momentu mingotsak ere bizi izan ditut”. Master Jai ekoiztetxeko lehendakaria izan da orain arte. Bere berbetan, esku onetan utzi du enpresa. “Betebeharrak eginda utzi dut; azken aldian hainbat hitzarmen sinatu ditugu, gainera”.

Pilota mundua utzi eta Filipinetara joateko asmoa agertu du Totorikaguenak. Hemendik aurrera, Meridien Vista Gamming zuzentzera mugatuko da Totorikaguena. ■ A.M.

AMALURRA>

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

Balore ekologikoa duten bideak, lehengoratuta eta erabilgarri

Herritarren artean harrera ona izan dutela adierazi digu Jabier Azpitarte alkateak: “Jende asko dabil bideak erabiltzen”

Ibilbide hauek herriko ondarea ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Azterketa arkeologikoak garatzeko asmoa daukate

Oka errekaren ertzeko baso-bidea eta Matzagabarrenatik Eitua industrialdera doana dira udalak atondutakoak

Berrizek inguruneagaz gozatzeko aukera ematen duten ibilbide berri bi ditu, udalak Aldundiaren laguntzagaz egindako lanei eskerrak. Berriak baino, zehazki, eraberritutakoak direla esatea zuzenagoa da. Izan ere, bat baso-bidea da eta bestea pertsonen igarotzeak zabaldutako bidexka. 150.000 euro inguruko aurrekontua izan dute lanek; iazko maiatzean ekin zieten. Bizkaiko Foru Aldundiak 84.000 euroko diru-laguntza eman zion udalari, eskualdean ingurugiroa zaharberritzeko arloan ematen duen lehenengo laguntza izanik.

Balio ekologikoa

Balio ekologikoa duten ibilbideak dira konpondutakoak. Olakuetako herri-gunetik elizako kanposantu ingururaino doan baso-bidean –GR-229ren barnean dagoena– hondarra bota dute, eta aisialdirako gune ere izateko jesarleku batzuk ipini dituzte bidean zehar. Kilometro bateko distantzia dauka ibilbideak, eta, basoa izatera, argiztapena jartzeko ezin izan dute eguzki-energia aprobetxatu. Hori bai, kontsumo baxuko LED argiak erabili dituzte, eta, gainera, ez daude gau osoan piztuta.

Industrialdera

Proiektua bi zatitan edo fasetan diseinatu zuten, eta bigarrenean sartzen da Matzagabarrenatik Eitua industrialdera doan bidexka egokitzea. Herritarren erabilerak sortutako bidea da hau, eta bertan bidegorriaren funtzioa ere barneratu dute; hau da, oinezkoentzako izateaz gainera, bizikletaz ere ibili daiteke, hormigoia bota baitute bertan. Trenbidearekiko paralelo garatzen da bide hau.

Harrera ona

Berrizko alkate Jabier Azpitartegaz egin du berba Anbotok egitasmoaren egoera aztertzeko. Azpitarteren arabera, bide biak “konponduta eta erabilgarri daude jadanik”.

Herritarren artean izan duen harreraren gainean galdetuta, “jende asko dabilela” adierazi digu alkateak; asko eta asko ei dira ibilaldiak egiteko aprobetxatzen dutenak.

Azterketa arkeologikoak

Ibilbide hauek herriko ondarea ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Nabarmentzekoa da eliza eta hilerri inguruan azterketa arkeologikoak hasi dituztela eta, beraz, gaur egungo baloreaz gainera, etorkizunean elementu gehiago atera daitezke argitara. Azpitartek aurreratu digunez, lehenengo zundaketak eginda, “gauza interesgarriak” aurkitu dituzte, eta bigarren fasean horietan sakondu gura ei dute.

Azterketak amaitzean ingurunea egokituko dute.

INMOBILIARIAK >

AMBOTO INMOBILIARIA
San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

• ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, eskegitokia eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. Zatoz ikustera.
• Apartamentu berriak eraikitzen.700€ hilero. EZ GALDU AUKERA HAU.
• ERDIALDEA: AZKENEKO APARTAMENTUA. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak. Edo nahiago baduzu alokatzen dizugu.
• HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
• ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Zonalde onean kokatua.
• PLATERUEN PLAZA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara eta garajea.
• ALLUITZ: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara.
• ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
• ZEHARKALEA: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela – jangela eta komuna.
• ANDRA MARI: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
• BARRENKALE: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.

BERRIZ

• Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000€.

ZALDIBAR

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

ATXONDO

• 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

TXALETAK SALGAI

URRUTXUA

• Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

• Baserria salgai. 4.000 m2-ko lursaila. Balzolako kobetatik gertu.
• Baserria salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

MALLABIA

• TRABAKUA: Baserria. 140m2 solairuko. 20.000 m2-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

• Guztiz berriztuta dagoen baserria. 3 solairu, sukaldea, egongela – jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

• MENDIOLA. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.
• Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua – txokoa. Lorategia barbakoarekin. Leku onean kokatua.

GARAI

• Adosatua salgai. Estreinatzeko. Leku ezin hobean kokatuta.

LUR SAILAK SALGAI

OROBIOS

• 4.200 m2-ko lursaila. Guztiz laua.

IURRETA

• 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

LEMOA

• 2.800 m2 eta 2.700 m2-ko lursailak eraikitzeko baimenarekin. Prezio interesgarria.

OLETA (OTXANDIO)

• 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu.Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea 15, behea • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZA BERRIAK

• ZALDIBAR: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
• ATXONDO: Adosatua lursailarekin salgai.
• ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
• DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatuak eraikitzen.
• BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
• OTXANDIO: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZAK SALGAI

• ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela, 2 komun eta egongelatxoa.
• ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
• ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeko.
• ARAMOTZ: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
• BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
• UNDA TORRE: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna.
• ZUBIAURREA: Halla, sukaldea, 4 logle, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
• MARTXOAREN 8a: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
• ERROTARITXUENA: Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea. Prezio interesgarria. Berriak estreinatzeko.
• GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea. Prezio interesgarria. Berriak estreinatzeko.
• EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
• F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
• INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
• IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
• JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
• KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
• KALEBARRIA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz barriztuta).
• KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz barriztuta eta erdi jantzia).
• KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
• LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
• MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m2.
• PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
• SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komun bakarra edo 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
• SAN FAUSTO: Halla, sukalde.jangela, 2 logela eta komuna.
• SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
• TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
• TXIBITENA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia. Ikuspegiekin.
• SALMENTAN BASERRIA LUR EREMUAREKIN ZORNOTZAN.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 • 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

• ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbararekin 185.000€ + BEZ
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€+ BEZ
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€ + BEZ

• DURANGO: Atikoa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 20 m2-ko 2 terraza. Garaje itxia.
• PAGASARRI: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
• ASKATASUN ETORBIDEA: 81 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Igogailua. Gas naturaleko berogaiua.
• SAN FAUSTO: Ekonomikoa.
• ABADIÑO: 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 120 m2.
• ZALDIBAR: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
• BERRIZ eta ZALDIBAR: Etxebizitzak salgai. Deitu gaitzazu eta konpromiso barik erakutsiko dizkizugu!
• ABADIÑO, MUNTSARATZ eta ELORRIO: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.
• ZALDIBAR: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
• DURANGALDEA: Baserriak,txaletak,pabilioiak eta garajeak hainbat zonaldetan, salgai edo alokairuan.
• ARKOTZA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoia eta ganbara.
• ARAMOTZ: 62 m2. 3 logela. Guztiz berriztatua eta jantzia.
• MENDIZABAL: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
• ALLUITZ-FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
• TXIBITENA-LANDAKO: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
• TXIBITENA: Etxebizitza handia. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta 2 komun. Garajea.
• LANDAKO: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
• ZUMALAKARREGI-EZKURDI: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
• EZKURDI: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara.
• EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
• FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
• MURUETA TORRE: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
• JUAN DE ITZIAR: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
• ASKATASUN ETORBIDEA: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
• ASKATASUN ETORBIDEA: 115 m2. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
• ARKOTXA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun.
• HERRIKO GUDARIEN: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
• FRANTZISKO IBARRA: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
• SAN IGNAZIO: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
• SAN FRANZISKO: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi.
• SAN FAUSTO: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Guztiz berriztatua. Prezio interesgarria.
• ZEHARKALEA: 70 m2. 2 logela.
• ARRIANDI AUZOA: 76 m2-ko baserria salgai. Trastelekua eta garajea guztiz barriztatua.
• ZEANURI: Baserri ikusgarria paraje zoragarrian kokatua. Ikuspegi ederrak.
• ZEANURI: Lursaila salgai. Unifamiliarra egiteko aukerarekin. Zonalde lasaia.
• MATIENA: Lebario auzoa. Baserria salgai. 3.000 m2-ko lursaila.
• NOJA: Deneriko etxebizitzak dauzkagu aukeran
• ELORRIO: Pabilioia salgai. 500 m2. 60 m2-ko bulegoak erdiko solairuan kokatuak aire egokituarekin. Aukera! Prezio negoziagarria!

AUKERA GEHIAGO:
www.inmoduranguesado.com

ETXETXO G. INMOBILIARIA
Saibigain, 1 (sarrera F.J. de Zumarraga kaletik)
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA

• ZALDIBAR: Eraiki berria, bukatuta. 138.000€-tik aurrera. Garajea eta trastelekuarekin.
• IURRETA: Maspe: Eraiki berria. 1,2,3 eta 4 logela. 210.500€-tik aurrera.
• DURANGO: Etxebizitzak terrazekin salgai. 1,2,3 eta 4 logela.
• ABADIÑO: Berehalako banaketa. 2 eta 3 logela, sukalde jantzia eta 30 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekua. 265.000€-tik aurrera.
• MAÑARIA: 3 logela, sukalde jantzia eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. 252.000€

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

• DURANGO: AZKENEKO etxebizitza. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.
• EZKURDI: 70 m2. 180.000€.
